

Benito Deuna ta Euskalerrria

LENAGO

Gure artean ondo zabaldua dago, lekaideak zelako lana egin daben erriaren alde, baiña ez da aitzu bear lekaideak Euskalerrrian Benito deuna baiño lenago-koak dirala. Gero Benitoiren araudipean barritzatze ta indar aundia lortu eben.

Ez uste izan beneditarren lana, lekaide-lekaimeen lana, gogo utsezkoa izan danik. Eziketari, etxegintzan, lur-langintzan, liburugintzan... eta zenbat arlotan izan daben euren eragiña, ez dau aitzu bearko Europa guztiak, eta ez Euskalerrria be.

MENDEURRENA

Aurten mundu guztiko bededitarrak Benito c'eunaren XV mendeurrena ospatzen dab e.

Ori dala-ta, Oñati'ko lekaime beneditarren etxean otoitz eta gogaketa-aldia izan d t, Lazkao'ko, Estibaliz'ko eta Oñati'ko beneditarrak eratzaile dirala. Egunak, uztailaren 21, 22, 23, 24.

Egun gogoangarriak izan doguz, bai bertako giroa ain gizatia ta euskalduna, baita bertan ezagutu doguzan eleiz-gizon eta emakume apal eta biotz onekoak eza-gutzeko erea izan dogulako be.

EUSKERAZ

Gure izkuntzak ez dauala aurrerape-nik lortzen eta illetea jotzen ibiltzen gara

sar'itan. Ba antxe izan dogu sekulako erea euskerearen aurrerapen aundi bat ikusteko.

Euskalerrri guztitik (Naparroa'tik izan ezik) batu ziran an batzarkideak eta ez zan barbarik be egin euskeraz izan ezik. Orain urte batzuk, amar bat urte, olakorik ames be ezin zeitekean egin, baiña zorionez lekaideak sasoiz artu eben, isilean, bide egokia. Orra or ondoren zuzena.

Ameriketarik etorritako eta Atxondo'ko alabea dan lekaime bat be ezagutu genduan: Zelako poza arena, batzar guztiak euskeraz izango zirala «Vida Nueva» aldizkarian irakurri ebanean! Geiago barrik izena emon eban. Euskeraz berba egiteko gaiztasun apur bat ba-eukan, baiña erri-miña barruan!



Eta ez batzarrak beste barrik! Eleizako abesti guztiak, orduen Liturjia oso-osoa, Meza guztiak... Dan-dana euskeraz abestuta, egunero iru edo lau saioaldi egin ondoren. Gauza ederra benetan! Alkar-izketa guztiak be euskeraz!

BERBALDIK

Egunen itzaldi bat izan genduan: Lenengo egunean Pedro Nuñez Sakramentinoarena, «Bibliaren irakurketa otoitz-giroan» gai dala; bigarrenen, Oñatibia'tar Ignazio'rena, «Liturji-otoitza ta bizitza» gai dala; irugarrenean Juan Mari Uriarte Gotzaiñarena «Lekaideak Eleizan gaur» gai dala; eta laugarrena Zunzunegi'tar Jose Mari'rena «Lekaide beneditarrak Europa'n: Sebitzari ta Testigu» gai dala.

Gogoangarriak berbaldi guztiak, batez be Zunzunegi'k azaldu euskuzan Beneditarren lanak eta Uriarte gotzaiñak agertu euskun Lekaideen gaurko zeregiña, aitzu-eziñak izan ziran.

Azkenean iru txosten: «Benito Santuaren bizitza ta erregela» deritxon liburuaren aurkezpena, Lekaide euskaldunen izenak munduan eta Basile Joannateguy idaztearen barriak. Apaolaza, Mujika, Ozaeta eta Baztarrika beneditarrak izlari.

BIZKAIA'N?

Aspaldion diardugu entzuten Bizkaia'n lekaide Beneditarren etxe bat sortu bear dala. Ziarrutza'n izango ete zan be ntzun genduan. Gauza ederra litzake. Noiz izango ete da egi? Gaurko gizon Jainko-zaleentzat opor-egunak igaroteko ara egokia be ba-dira lekaide-etxe oneik.



OLAZAR'tar Martin'ek